

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak aintzat hartu du suhiltzaileen bigarren jarduera arautzen duen foru dekretua

Onartutako testua Nafarroako Kontseiluari helaraziko zaio orain aginduzko txostena landu dezan

Asteazkena, 2018.eko martxoak 14

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Suhiltzaileetan suhiltzaileen edo suhiltzaile-kaboen lanak egiten dituen pertsonalaren bigarren jarduerako egoera arautzen duen foru dekretu proiektua aintzat hartzea erabaki du gaurko saioan.

Foru dekretu proiektu honen tramitazioa Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari M^a José Beaumonten otsailaren 27ko 34/2017 Foru Aginduarekin hasi zen, eta sindikatuekin batera negoziatu da Nafarroako Suhiltzaileen eta Babes Zibilaren arloko ondoz ondoko hainbat lan-bilera eta mahai sektorialetan. Nagoziazioa mahai sektorialak 2017ko abenduaren 1ean egindako bileran itxi zen.

Lan mota hau Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legean zehaztuta dago, eta horren arabera, bigarren jarduerako egoeraz profitatzeko, suhiltzaileen edo suhiltzaile-kaboen lanpostuak betetzen dituzten prebentzio, su-itzaltze eta salbamendu zerbitzuetako funtzionarioek eritasunez edo istripuz ezindurik egon behar dute haien lanpostuei dagozkien eginkizunak betetzeko, 60 urte beteak izan behar dituzte, edota 55 urte bete eta horretarako eskaria egina izan behar dute.

Pertsonalaren gaitasun psikofisiko egokia bermatzea da egoera administratibo honen helburu nagusia, zerbitzuaren eraginkortasunari eta langileen segurtasunari eutsiz.

Gaur onartutako dekretu proiektuak egoera honen ezaugarriak eta inguruabarrak garatu eta zehazten ditu: sarbidearen arazoak, garatu beharreko postuak eta funtzioak, lan-baldintzak eta egoera horretara iristeko prozedura administratiboak.

Pertsonal honen funtzio nagusia larrialdiak artatzeari sostengua ematea da, aldez aurretik (prebentzio eta dibulgazio lanen bitartez), ezbeharrak dirauen bitartean (logistika lanekin), nahiz ezbeharraren ondoren (normaltasuna berreskuratuz).

Bete ditzaketen lanpostuak zenbait jarduera-motaren arabera taldekatu dira: ibilgailu nahiz tresnen mantentze-lanak, arnasketa autonomoko ekipamenduen eta ekipamendu berezien mantentze-lanak, biltegi nagusiaren eta ekipamenduen ikuskapena, parke nagusiko komunikazio-zentrala artatzea, sarbiderako eta promoziorako prestakuntzako lankidetzak, bestelako ikastaro espezializatuak, suhiltzaile

boluntarioen parkeen sareari zuzendutako laguntza, basoko suteak prebenitzen eta itzaltzen laguntzea eta parkearen arduradunaren funtzioei sostengua ematea.

Dekretu proiektua Nafarroako Kontseiluari helaraziko zaio orain, behin-betiko onarpenaren aurretik behar den aginduzko txostena landu dezan.